

Legazpin, 2021eko urtarrilaren 11n

Guraso agurgarriak:

Zuen seme-alaben bizitzako unerik garrantzitsuenetako bat heltzear dago, bere etorkizunerako oinarriak ezarriko dituen eskolaratze prozesuaren hasiera, hain zuzen ere.

Legazpin bertan dauden eskaintzen artean egokiena zeini deritzozuen erabaki baino lehen, ondorengo egunetan bidaliko dizuegun dokumentazioan Haztegi Ikastolaren Hezkuntza Proiektua ezagutzeko aukera izango duzue.

Gutziz garrantzitsutzat jotzen dugu Haztegi Ikastolan haurrari eskaintzen diogun aukera, **2 urtetik 18 urte** bitarteko ikasketa guztiak ikastetxe berean egitea ahalbidetuz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa (DBHO) bertan eginez.

Bestalde, aipatu beharra dago egungo gizarteari egokitutako **heziketa integralarekin** dugun erabateko konpromisoa: **Hezkuntza proiektu berritzailea, irakasleriaren etengabeko hobekuntza, pedagogia teknika aurrerakoia, azken teknologia berriak, eleaniztasun goiztiarra...** eta hau guztia gure familien konfiantzari esker.

Hemendik aurrera ere, gure ibilbide honetan, zuen konfiantza izan nahi genuke. Hau dela eta, hartu behar duzuen erabakiaren garrantzia kontuan izanik gu hobeto ezagutzeko egingo ditugun bileretara gonbidatzen zaituztegu.

BILERA EGUNAK: Urtarrilaren 18an (euskaraz) eta 19an (gaztelerez).
GAIA: Haztegi Ikastolako proiektua eta funtzionamendua.
NON: Latxartegiko HH eremuan, Kultur Etxe ondoan.
ORDUA: 18:00etan. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.
ATE IREKIAK: Lan egunetan eta hitzordu bitartez, urtarrilaren 20tik 28ra (25ean

ezik)

Ordua: 10:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.

Egun edo ordu hauetan etortzerik ez baduzue edo bestelako hartu-eman nahi izanez gero, 943731097 telefonora deituta laguntzeko prest aurkituko gaituzue.

MATRIKULA EPEA: Urtarrilaren 18tik urtarrilaren 29ra, urtarrilak 25 salbu.
Orduetgia 08:00 - 13:00 eta 14:30 - 18:00
Ikastolako idazkaritzan.

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA:

- Familia liburuaren fotokopia.
- Gurasoen NAN fotokopia.
- Errolda agiria.
- K/K edo libretaren zenbakia.

Laster elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaituztegu,

Sagrario Etxabe Lasa

HAZTEGI IKASTOLA Koop. Elk.


S/Kutz 5 @ 20230 @ LEGAZPI (Gipuzkoa) @ TEL: 943 73 10 97 @ FAX: 943 73 15 37
legazpi@ikastola.eus @ www.haztegiikastola.eus





Haztegi Ikastolako Zuzendaria

HAZTEGI IKASTOLA Koop. Elk.
S/Kutz 5 @ 20230 @ LEGAZPI (Gipuzkoa) @ TEL: 943 73 10 97 @ FAX: 943 73 15 37
legazpi@ikastola.eus @ www.haztegiikastola.eus



Eskola
Jasangarria
Ziurtagiria

